



GASTEIZEN BIZIKIDETZAREN ALDEKO KONPROMISORAKO AKORDIO POLITIKOA

GASTEIZ, BIZIKIDETZA-HIRIA

ACUERDO POLÍTICO DE COMPROMISO POR LA CONVIVENCIA EN VITORIA-GASTEIZ

GASTEIZ, CIUDAD DE CONVIVENCIA

Giza Eskubideen Adierazpenean jasotzen den bezala, *gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik*. Adierazpen horrekin bat, hiri honek beretzat nahi duen bizikidetzaren ardatz ditu oinarritzko eskubideen sustapena, aukeraberdintasuna eta diskriminaziorik eza pertsona guztientzat.

Gizarte konplexuetan bizi gara, etengabe aldatzen ari direnak, eta aniztasunaren ideia mamitzen dute. Hori dela eta, Gasteizko herriarrek aukeratutako zinegotziok herriarekiko, pertsonetikiko, bizikidetzarekiko eta gizarte kohesioarekiko konpromisoa agertzen dugu, dagokigun erantzukizun politiko eta sozialak betez, eta herriarrek diskriminazioaren eta bazterketen kontra eskuzabaltasunez egiten duten lan handi eta eraikitzaileari babes emanez.

Agiri honek bizikidetzaren, aniztasunaren eta edozein motatako diskriminazioaren kontrako borrokarako adostasuna eta konpromiso politikoa jaso nahi ditu; orobat aniztasunaren kudeaketa publikoaren aldeko apustua, kulturartekotasuna ardatz.

Hori dela eta, gaur, martxoaren 21ean, bat egiten dugu Nazio Batuen Erakundeak antolatutako ekimenarekin, eta arrazagatiko diskriminazioaren eguna ospatzen dugu, honako konpromisoak hartzen ditugularik:

Tal y como se redacta en la Declaración de los Derechos Humanos, *todos los seres humanos nacen libres e iguales en dignidad y derechos, sin distinción alguna de raza, color, sexo, idioma, religión, opinión política o de cualquier otra índole, origen nacional o social, posición económica, nacimiento o cualquier otra condición*. En consonancia con esta Declaración, la promoción de los derechos fundamentales, la igualdad de oportunidades y la ausencia de discriminación para todas las personas son elementos clave de la convivencia que esta ciudad quiere para sí.

Vivimos en sociedades complejas y en continua transformación, que se expresan en la idea de diversidad. Es por ello que las concejalías electas por la ciudadanía de Gasteiz, en el ejercicio de responsabilidad política y social que nos corresponde, y respaldando la importante labor ciudadana desinteresada y constructiva contra cualquier tipo de discriminación o rechazo, mostramos públicamente nuestro compromiso con la ciudad y con las personas, con la convivencia y la cohesión social.

Pretende ser este un documento de consenso y compromiso político con la convivencia, la diversidad y la lucha contra cualquier tipo de discriminación, así como una apuesta por la gestión pública de la diversidad en clave de interculturalidad.

Por ello hoy, 21 de marzo, nos sumamos a la iniciativa de la Organización de Naciones Unidas celebrando el Día contra la discriminación racial y acordamos los siguientes compromisos:




- Hiria bizikidetzaren ardatz nagusia dela azpimarratzea. Lankidetzan, elkarrengandik ikastea, elkarrekotasunean eta, batez ere, pertsonen arteko interakzioan oinarritutako komunitatea. Beraz, bizikidetzaren ekintza boluntario eta kontzientea dela uste dugu, eta ikasi beharra dugu.
- Istiluak gizarte bizitzaren berezkoak balira bezala hartzea eta modu baketsuan jorratzea, horiek justifikatzeko kultura aniztasuna baliatu gabe, eta horretarako hainbat baliabide ezarritako arbitrajea, bitartekaritza eta kontziliazioa.
- Gaurko Gasteizek duen asmo nagusietakoa guztiontzako hiria izatea da. Hori dela eta pertsona guztiak desberdinak garela eta errespetua merezi dugula uste dugu. Horrenbestez, positibotzat jotzen dugu aniztasuna, eta arretaz kudeatzen dugu, bera baita bizikidetasuna sustatzeko eginbeharrekoen protagonista.
- Aniztasun bakoitza Aniztasun oso baten atala dela aitortzea. Aitortza horrek elkarrekikoa izan behar du, eta desberdintasunak errespetuz onartzea dakar; balioa eman behar zaie aldean konpromisoari, ekintza bateratuari eta konpromisoari, hartara desberdinen arteko elkarriketa eman dadin.
- Oreka eta gizarte kohesioa lortzeko estrategiak sustatzea, tratu-berdintasunean eta aukera berdintasunean oinarrituta, izan ere horrek gizarte anitz batean inpartzialtasun irizpidea ezartzea adierazten baitu.
- Ahalegin berezia egitea ahuldade zein diskriminazio egoerak —sexu, arraza, kultura, nazionalitate, sexu orientazio, ezintasun edo erlijioetatik gertatzen direnak— prebenitu, salatu eta horien kontra borrokatzeko, edozein motatako gizarte bazterkeria saihesten dadin.
- Kulturartekotasuna sozializatzeko eta aniztasunaren kulturari laguntzeko baliabideetat hartzea, izan ere, inolako ideologia motari lotuta ez badago, aniztasun kategorien arteko loturak sortzeko aukera ematen du, besteak beste hizkuntza, erlijio eta identitate aniztasunak den gizartean.
- Significar la ciudad como elemento central de la convivencia. Una comunidad basada en la cooperación, el aprendizaje mutuo, la reciprocidad y, sobre todo, la interacción entre las personas. Entendemos por tanto la convivencia como un acto voluntario, consciente y que tenemos que aprender.
- Asumir los conflictos como propios de la vida social, abordarlos de forma pacífica sin recurrir a la diversidad cultural como justificación de los mismos, estableciendo medios como el arbitraje, la mediación y la conciliación.
- La ciudad para todas y todos constituye uno de los principales ideales de la Vitoria-Gasteiz de hoy. Es por ello que asumimos que cada persona es diferente y digna de respeto. Así, valoramos positivamente la diversidad y prestamos atención a su gestión, siendo ella protagonista en la tarea de impulsar la convivencia.
- Reconocer cada una de las diversidades como parte de un todo que es la Diversidad. Este reconocimiento ha de ser recíproco y requiere de la aceptación de las diferencias en términos de respeto, valorando el compromiso de las partes, la acción conjunta y el compromiso, superando así el diálogo entre diferentes.
- Impulsar estrategias para lograr la estabilidad y la cohesión social basadas en la igualdad de trato y de oportunidades que, en una sociedad diversa, significa aplicar el criterio de imparcialidad.
- Poner especial empeño en prevenir, denunciar y luchar contra situaciones de especial vulnerabilidad y/o discriminatorias hacia las personas por razón de su sexo, origen étnico o cultural, nacionalidad, orientación sexual, discapacidad o confesión religiosa para evitar cualquier tipo de segregación o exclusión social.
- Asumir la interculturalidad como herramienta de socialización y contribución a la cultura de la diversidad, ya que no estando vinculada a ninguna ideología, ofrece la posibilidad de crear vínculos entre categorías de diversidad en una sociedad políglota, politeísta, polidentitaria, entre otras.





- Herritarrek parte hartzeko eszenatokiak eta erakunde esparruak ezartzea, hiri espazioak eta sozialak, pertsonak eta taldeek zein hiri motatan bizi nahi duten erabaki dezaten.
- Argi izan zurrumurruek aniztasunaren aurkako topiko eta estereotipo negatiboak zabaltzeko bide direla, baita jarrera eta jokamolde diskriminatzaileak izateko pizgarri ere. Hori dela eta, Gasteizko Udalak laster zurrumurruen aurkako euskal sarearekin bat egingo du, horren bitartez zurrumurru faltsuen aurkako ezagutza, jokamoldeak eta lanabesak partekatzea, eta aniztasunaren aurkako hizketaldi negatiboak zigorrik gabe geratzeko lekuak gutxitzea xede.
- Gasteizko errealitate berria ikusgai egitea, aniztasuna baliabide abesgarri normalizatze-ko xedearekin.

Horregatik guztiarengatik, aniztasuna balio handiko baliabide publikoa dela uste dugu eta, gizarte kohesioa oinarri hartuta, orain egitura berriak sortzeko aukera aparta dugula. Beraz, Gasteizko Udalak - berarekin lan egiten duten gizarte erakundeekin bat- aniztasunean oinarritutako bizikidetzaren aldeko apustu irmoa egiten du, "Bizikidetzeta Plana" bide-orri hartuta.


Vitoria-Gasteizen, 2016ko martxoaren 21ean


Oscar Fernández
IRABAZI-GANAR


Juan Cerezuela
PODEMOS


Peio López de Munain
PSE-EE


Miren Larrion
EH BILDU


Ainhoa Domaica
PP


Gorka Urtaran
ALKATEA-ALCALDE - EAJ/PNV

- Establecer escenarios y marcos institucionales para la participación ciudadana, espacios urbanos y sociales para que las personas y los grupos decidan el modelo de ciudad en el que desean vivir.
- Mantener la convicción de que los tópicos y los estereotipos negativos hacia la diversidad tienen en los rumores un vehículo de propagación y son el caldo de cultivo de actitudes y prácticas discriminatorias. Por este motivo el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz se va a adherir próximamente a la Red Vasca Antirumores con el objetivo de compartir conocimiento, prácticas y herramientas en contra de los falsos rumores y reducir los espacios de impunidad del discurso negativo sobre la diversidad.
- Potenciar la visibilidad de la nueva realidad de Vitoria-Gasteiz, con el objetivo de normalizar la diversidad como elemento enriquecedor.

Por todo ello, concebimos la diversidad como un recurso público de alto valor y consideramos que estamos ante una oportunidad única para crear nuevas estructuras en base a la cohesión social. Así, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, en sintonía con las organizaciones sociales con las que colabora apuesta decididamente por la convivencia en diversidad valiéndose para ello del Plan de Convivencia como hoja de ruta.

Vitoria-Gasteiz, a 21 de marzo de 2016